

Herri Aldizkaria

**otomotz**

2005eko apirila 106. alea



# San Isidro jaiak

Eitzaren iraganaz, orainaz eta geroaz

KOLABORAZIOA: ANDONI SALAMERO

ELKARRIZKETAK: JUAN LARRAÑAGA - RAMON YURREBASO

IZERDI PATSETAN: NORA DOAZ MENDIZALEAK?



# Urretxu-Zumarraga Ikastola

# Garaialde Lizeoa

**Milurte berriko hezkuntza eta hornidura**



## **BATXILERGOAK - D EREDUA**

**Natur eta Osasun Zientziak - Giza eta Gizarte Zientziak**

**Lau ibilbide: Zientifiko-Teknikoa, Osasun Zientziak, Gizarte Zientziak eta Giza Zientziak**  
**Zereginen Ikasketa Gela (ZIG)**



**AURREMATRIKULA: apirilaren 25etik maiatzaren 6ra**

**MATRIKULA: ekainaren 30etik uztailaren 6ra**

**Labeaga kalea, 25 - Urretxu - ☎ 943 72 21 12**



# ARGAZKI ZAHARRA



1950eko hamarkadan Zelai-Ariztikoko pilota txapelketako final batean ateratako argazkia. Goian: Urkia, Migel Urteaga, Jose Ignazio Beltran eta Jose A. Mendizabal. Behean: Idiakez, Jose Mendizabal, Ignazio Anduaga eta Esteban Barrena.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

**Argitaratzailea:** Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73  
**Koordinatzailea:** Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Maider Hernando, Jonmikel Insausti, Itziar Ormaetxea, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldúa.  
**Diseinua:** Sebas Iturriz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga  
**Lege Gordailua:** SS-742/96 ISSN: 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale.  
**Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



## Mutua General de Seguros


Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599


2005eko apirila



# KLIK ETA KLIK




Hilabete honetako argazkiak Jesus Udabe "Aresti"-k ateratakoak dira.





# KLIK ETA KLIK



- INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK
- ELEKTRAGAIAK
- BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina - ☎ 943724012 - Faxe: 943725431 - ZUMARRAGA

2005eko apirila



## Eitzaren iraganaz,

## Festa batzordeko kideekin izan ga

Maiatza urteko hilabete handiena da Eitzako bizilagunentzat, San Isidro jaiak direla eta. Urretxu eta Zumarragako gainontzeko bizilagunok ere gustura hartzen ditugu festa hauek, bi herriotako lehenak izaten baitira eta parranda giro bikaina izaten baita. Izan ere, eitzatarrek kasta berezia dute eta festa batzordekoek ahalegin handia egiten dute San Isidro bikainak antolatzen. Festa batzordekoekin, Eitzako "udalbatzako" kideetako batzuekin, izan gara euren lanari eta auzoari buruz hitz egiten.



San Isidro jaietako festa batzordeko kideak otsailean hasten dira lanean. Egitaraua prestatzeko eta lana banatzeko Topalekun elkartzen dira eta gu ere bertan bildu ginen beraiekin. Batzordeko bilera ostean, Vicente Bernabe, Aitor Calvo, Joxi Etxeberria, Asier Murua, Lazaro Ormazabal eta Andoni Zarandona izan ziren gurekin hitz egiten gelditu zirenak.

Vicente Bernabek eta Lazaro Ormazabalek urte asko daramatzate auzoko jaiak antolatzen, baina ez dakite zehaz-

ki noiztik antolatzen diren. "Ni 1960an etorri nintzen eta ordurako Antigua hiribidean festak antolatzen zirela gogoratzen dut", dio Vicente Bernabek. Garai hartan, Lazarok ondo oroitzen duen moduan, Bordatxo tabernaren ondoan zegoen Piñu-Azpi elkartekoek antolatzen zituzten San Isidro jaiak.


Ondoren, duela 30 bat urte, sortu berria zen Irrika elkartekoek eta auzoko gazteek hartu zuten festak antolatzearen ardura. "Ni 16 bat urterekin hasi nintzen

festen antolaketan parte hartzen (Lazaro). Urte askotan Irrikakoek eta garai bateko gazteok jarraitu genuen, duela sei urte auzoko egungo gazteak batzordean sartu ziren arte".

Aitor Calvok ondo oroitzen du nola hasi ziren festa batzordean. "Azkenaldian Lazaro, tabernariak eta inor gutxi gehiago zebilen. Hori dela eta, txikitatik elkar ezagutzen dugun hainbat gaztek batzordean lanean hastea erabaki genuen". Joxi Etxeberriak dion moduan, euren lehen



Behealdeko argazki hauek guztiak eta azalekoa 1975. urteko San Isidrotan atera ziren, Irrika elkartek hala aginduta.





## orainaz eta geroaz

### a, euren lanaz eta auzoaz solasean

ekimena Txomin taberna festetarako irekitzea izan zen. "Sekulako ilusioz lan egin genuen Txomin irekitzeko eta auzoko guztiek pozez hartu zuten irekiera. Izan ere, auzotar askorentzat Txomin bigarren etxea izan da".

Baina bi urtetan jarraian soilik izan zuten Txomin irekitzerik... "Ormaiztegiak gertatu ondoren, badaezpada ere gehiago ez irekitzea erabaki genuen. Ordutik beste lokal batzuetan ireki dugu festa batzordearen taberna".

Lazarok eta Vicentek gustura hartu zuten, noski, gazteen partehartzea. "Auzo askotako festak desagertu egin dira eta hemen ere, bolada batean, ozta-ozta antolatu genituen festak. Ez genuen amore eman eta merezi izan zuen. Pena izango litzateke horrenbesteko tradizioa duten festak galtzea".

San Isidroren etorkizuna bermaturik, Vicentek festa batzordea uzteko asmoa du. "Familia etxean utzita ordu asko sartu ditugu urte luzetan. Sinesten ez didaten arren, aurtengoaren ondoren batzordea utziko dut".

Vicentek lasai alde egin dezake, azkenaldian batzordeak bultzada berria jaso baitu. "Mansion 69 lokaleko gazteek festetan euren lokala irekitzen zutela kon-

turatu ginen eta batzordean parte hartzea gonbidatu genituen. Gainera, atzetik festa egunetan lan egiteko prest dagoen jende asko dugu eta auzoko elkarte gastronomikoek ere laguntzen dute".

Antolaketa lanetan ordezkoak etorri diren arren, Vicente Bernaberen ustez festak ez dira gehiegi aldatu urte hauetan guztietan. "Ekitaldi asko aspalditik egiten dira eta denak antzera jarraitzen

**"Errotanda berria oso onuragarria izan da eta etxebizitzak egiten badira, auzoa indartu egingo da"**

badu, arrakasta duen seinale. Lehen jubencil mailako txirindulari lasterketa arrakastatsua egoten zen, baina azkenerako oso garestia ateratzen zitzaigun. Bestalde, zenbait ekitaldi San Isidron izaten ziren, urte batean neska bat auto batek jota hil zen arte. Urte hartan eta Ertzaintza igo zen urtean soilik suspenditu dira festak".

Aitor Calvok dioenez, dirua da

hobekuntzak eta berrikuntzak egiteko oztopo nagusia. "Daukagun diru sarrerarekin gauza handirik ezin da egin. Hala ere, berrikuntza batzuk sartu ditugu: afari herrikoia, esaterako. Urte batzuetan alde batetik kalderetea egin zen eta bestetik gazteen afaria. Bakoitza alde batetik ibiltzeari uztea erabaki genuen eta, horretarako, arrakasta handia izan duen afari herrikoia antolatze-ari ekin genion".

Aurrekontua estaltzeko nahiko larri ibiltzen diren arren, nola edo hala moldatzen dira. "Gure diru-iturriak Udalaren dirulaguntza, barrakak, jai egitarauko publizitatea, zozketak eta festa batzordearen taberna dira. Jendeak festak antolatzea diru asko kostatzen dela jakin behar du: gastuak gero eta handiagoak dira eta sarrerak betikoak".

Dirua lortzeko eta egitaraua lotzeko erruz lan egin behar izaten dute. "Otsailean hasten gara lanean, baina lanik handiena Aste Santu ondoren egiten dugu. Taberna prestatzeak, batez ere, lana handia ematen du, baina lanaren ondoren poteo herrikoia egiten dugu eta hala arinagoa egiten zaigu".

Festa batzordekoek ez dute inongo zalantzarik: ahalegin honek guztiak merezi du. "Auzoaren alde lan egiten dugu eta gure artean giro ona dugu. Auzokoekin





# HILABETE HONETAKO GAIA



Argazkiak: Vicente Bernabe.

beste koadrilatxo bat egin dugu eta jarraitzeko indarra dugu. Festek auzoa bizirik dagoela erakusten dute. Gazte jende asko kalera joan da bizitzera eta bi hilabete hauetan gazteak auzora itzultzen dira. Bestalde, festei esker herriko jendea auzora igotzea ere lortzen da. Jendeak gustura hartzen ditu, gainera, Eitzako festak".

Beste auzo batzuetan ez bezala, Eitzan festei eusten badiote, auzo honek izaera berezia duelako da. "Eitza bizirik dago: batzuek egunero auzoan poteatzen dute, beste batzuk astean behin-edo igotzen gara, gazteak eta helduak elkarrekin ibiltzen gara, auzoan bizi izandako asko laguntzeko prest daude... Eitzan jendea integratua dago eta auzoan bizi izan dena eitzatar sentitzen da. Etxeberriko bati ez diozu Etxeberrikoa dela entzungo, guk, ordea, Eitzakoak garela esaten dugu toki guztietan".

Auzoa gehiago girotzeko eta

auzotarren arteko hartu-emana estutzeko, festez gain, urtean zehar beste ekitaldi batzuk antolatzea gustatuko litzaieke. "Aspalditik dugu kultur mailan zer edo zer antolatzeko asmoa, baina gaur egun hitzaldiak eta antzerakoak antolatzea arriskutsu samarra da: mundu guztiak kobratzen du, askotan arrakastarik ez dute izaten... Auzoan kanpoko jende asko bizi denez, inmigrazioaren inguruko zer edo zer antolatu nahiko genuke kanpoko jendea integratzeko, baina festen ondoren sakabanatu egiten gara. Festetatik kanpo egiten dugun ekitaldi bakarra bodega batera txangoa da".

Dena hobetu daitekeen arren, bestelakoan ere auzoa ondo ikusten dute festa batzordekoek. "Errotanda berria oso onuragarria izan da eta atzealde horretan etxebizitzak egiten badira, auzoa indartu egingo da. Garai batean, auzotar asko Elgarrestamendiko etxeetara-eta joan ziren, baina orain beheko gazteak etorriko

dira eta auzokoek bertan gelditzeko aukera izango dute. Auzoa asko hobetu da azken urteotan".

Vicente Bernabek ederki asko daki Udalak datozen urteetarako dituen asmoak, auzoan beharren bat somatzen duen bakoitzean Udaletxera joaten baita. "San Isidron aparkalekua egin behar da, San Gregorio kale atzealdean etxebizitzak eta aparkalekuak egin behar dira... Auzoan zer edo zer gaizki dagoela ikusten dudana bakoitzean, alkatea edozein izanda ere, konpontzera ekartzen dut. Orain San Gregorio kaleko eta Antigua hiribideko harlandua konpondu behar da".

Eitzako festa batzordekoak gustura dira, oro har, Udalarekin. "Alkatea bera auzotarra da! -diote txantxetan- Udala beti laguntzeko prest dago, baina berak ere mugak ditu. Diru gehiago ematea gustatuko litzaiguke, baina bestelako eskakizun guztiei ondo erantzuten die".

## Eitzako tabernariok San Isidro jai zorientsuak opa dizkizuegu

**EITZA  
KAFETEGIA**

Txibiarroetan espezialitatea

☎ 943 72 35 57



**Korta  
taberna**

2005eko apirila



# HILABETE HONETAKO GAIA

## Soraizetik jaitsitakoek sortutako auzoa

Eitza auzoaren historiari buruz hitz egiteko, Antonio Prada Zumarragako Udaleko agirizainarekin izan gara. Auzo honen inguruko agiri gutxi dauden arren, datu bat ziurra dela esan digu: Eitzakoa da Zumarragako kale-rik zaharrena.

Antonio Pradaren esanetan, Zumarragaren populatzea era naturalean egin zen. "Inork ez zion hirigutunik eman hemengo jendeari lurralde hau populatzeko. Lur onenak ibai ondokoak diren arren, hasieran ez ziren horiek erabili bizitzeko. Izan ere, lehen oso sarritan izaten ziren uholdeak Urola ibaian. Uholdeak pairatzen zituzten lur horietan intsektuak izango ziren eta gaixotasun-foku izango ziren, seguraski".

Hori dela eta, jendea toki altuagoetan jarri zen bizitzen. "1300. urte inguruan jendea ibaiaren alde batean eta bestean baserriak egiten hasi zen. Zumarragako lehen dokumentua 1366koa da: Antioko eliza aipatzen da. Eliza eginda bazegoen, argi dago ordurako inguru honetan jendea bizi zela. Ordurako Urretxu-

Zumarragan 60 baserri-edo egongo zirela pentsatzen dut".

Beranduago, ibaitik gertuago etxeak eraikitzen hasi ziren. "Baserri bakoitzak lurak zituen eta, azkenean, mendia baserri beteko zen. XV. mendeko azken urteetarako mendiak ezingo zuen dagoeneko guztientzat eman. Hori dela eta, lur berriak irabaztea erabakiko zuten. Soraiz ondoko tokitik hasi ziren: Eitzatik. Eitza bete zenean, handik 50-75 urtetara, ibaiaren ondoko lurretara jaitsi ziren. XVI. mende erdialderako Kalebarrenen jendea zegoen".

Eitzan bizitzen jarri eta berehala baseliza egin zuten. "Bai baserri auzoetan, bai parroki ondoan ez zeuden hiri auzoetan, ermitak egiten zituzten. Eitzakoa 1540. urterako eginda zegoen: hasieran Santa Engrazia izena zuen eta gero San Gregorio jarri zioten. Ez dakigu noiz eta zergatik aldatu zioten izena. XVII. eta XVIII. mendeetako agiritan bi izenak ageri dira. Oraindik Santa Engrazia eta San Gregorio egunetan meza egiten da bertan".

Eitzan egin zen, bestalde, Zumarragako lehen kalea. "Eitzan baserri asko egiteko bezainbeste lur ez zegoenez, bertan egin zen Zumarragako lehen kalea. XVII. mendeko aktetan baserri auzoak (Soraiz, Aranburu, Leturia eta Elgarresta) eta kale bat (Eitza) aipatzen dira".

Ordurako jada, jende asko bizi omen zen Eitzan. "XVI. mendean sute handia izan zen Eitzan eta 30 etxe erre ziren. Sute horrek kalte handiak eragin zituzenez, Zumarragako urte askotan ez zuen Gipuzkoa mailako zergarik ordaindu".

Auzoa prozesu natural baten ondorioz hazi omen zen. "Seme batek etxea aitaren etxearen ondoan egingo zuen, baina ez dut uste, XX. mendearen bigarren erdialdera arte, auzoa hazteko egitasmo berezirik egongo zenik. Dena den, duela 60-50 urte Eitza eta beste ezer gutxi zegoen Zumarragan: Eliz-Kale, Piedad, Kalebarren, Legazpi, Euskadi enparantza eta Soraluze, besterik ez. Duela 150 urte, berriz, kale bakarreko herria zen oraindik.



[www.megadenda.com](http://www.megadenda.com)

**Megadenda**  
zure aukera musika eta liburutan

**ramos**  
Bergara, 6  
20005 Donostia  
Tel.: 943 42 63 50

**bilintx**  
Ibargarai, 12  
20570 Bergara  
Tel.: 943 76 40 50

Fermin Calbeton, 21  
20003 Donostia  
Tel.: 943 42 00 80  
(Jai egunetan zabalik)

Paseo Colon, 8  
20302 Irun  
Tel.: 943 63 17 26

Arostegieta z/g  
20400 Tolosa  
Tel.: 943 67 35 33

tarjeta  
megadenda  
txartela

2005eko apirila



## Juan Larrañaga: “Eitza Z

### Aiatik Zumarragara uztarriak egite

Eitzari buruzko atal hau osatzeko hitz jario oneko norbait nahi genuen eta festa batzordekoek Juan Larrañagarengana bidali gintuzten. Larrañaga azpeitiarra da jaiotzez, baina Urola ibaiaren goialde honetan eman du bizitzaren zatirik handiena. Urretxura uztarriak egitera etorri zen, Ezkion eman zituen ezkondu ondorengo lehen urteak eta duela 35 urte geroztik Eitzan bizi da.

#### Zer nolakoa izan zen zure bizitza Urretxu-Zumarragara etorri aurretik?

Azpeitian jaio eta 14 urte bete arte bertan bizi izan nintzen. Aitak baserri handiagoa nahi zuen eta Meagas gaina ondoko Aiako Elkano auzora joan ginen. Nik ere ez dakit non ibilitakoa naizen! 18 urterekin Aizarnara joan nintzen morroi, anaia zaharragoa soldadu eraman zutenean etxera itzuli nintzen eta gero Valentziara bidali ninduten soldadu. Lau urte eman nituen Valentzian eta gero beste bi hemen: sei urte soldadu! Eguneke erreala irabazten genuen, dote ederra!

#### Gerra ostean izanik, ez zenuen soldadutza gozoa pasatuko...

Kristonak ikusi genituen! Buruan ileak adina goardia eginda nago ni: Valentziako Modelo gartzelan, San Miguel de los Reyesen, emakumeen gartzelan... 3.000tik gora preso zeuden gartzela bakarrean. Liria herrian fabrika izandako toki batean sartu zituzten presoak eta etzanda ez ziren kabitzen, bizkarra bata bestearen kontra jarrita lo egiten zuten. Sekulako gosea ere jasan behar izan genuen: goizean laranja bat gosaltzeko eta eguerdian arbia egosita. Mandoan eramaten genituen perola zaharrak gartzelatik gartzelara.



Heltzerako dena hoztuta... txerriek ere ez zuten jango hura eta guk jan egin behar!

#### Gustura itzuliko zinen orduan Euskal Herrira...

Bai horixe! Hemen pasatako bi urteak ondo pasatu genituen. Valentzian lehen baimena 13 hilabete ondoren izan nuen, amona hil zelako. Ondoren beste baimen bat besterik ez nuen izan. Lau urte etxea ia ikusi gabe!

#### Nolatan etorri zinen Urretxu-Zumarragara?

Soldadutzatik etorri eta nonbait lanean hasi behar... Olarte baserriko osabak lana bukatu ezinda zegoela eta berarengana etortzeko esan zidan. Halaxe etorri eta 8 urte inguru eman nituen uztarriak egiten. Nekolalden zuen tailerra eta bertan egunean bina uztarri egiten genituen. Hasieran Santanderreko biltegietarako-eta asko egiten genituen, baina lana jaisten



## umarragako balkoia da”

### a etorria, 35 urte daramatza Eitzan

hasi zenean Nafarroa aldean ibili ginen etxez etxe uztarriak egiten. Algoazilari bandoa jotzeko esaten genion: uztargilea herrian zegoela eta uztarria nahi zuena ostatura joan zedila. 15 egunetara materiala prest edukitzeko esaten genien eta han bertan egiten genituen aizkorarekin.

#### Nolatan utzi zenuen uztargile lana?

Poliki-poliki traktorea sartu zen eta fabrika hastea hobe zela ikusi genuen. Hala, 1950ean Orbegozonean hasi ginen. Orain dira 25 urte jubilatuta nintzela, gaztea izateko seinale ederra!

#### Etorri zinenetik, non bizi izan zara?

Hasieran osabaren etxean apopilo. Familia Aiako Elkano auzoan neukanez, hara joaten nintzen sarritan. Emaztea bertakoa dut eta hona etorri behar izan zuen ezkondu ginenean, hura politagoa zela esaten zuen arren. Ondo moldatu zen, baina oraindik "etorri ginen ba gu honea!" esaten du noizean behin. Dena den, familiakoak bezala dauzkagu hemen lagunak. Hasieran Ezkion jarri ginen bizitzen, Igartzan, hemen ez baitzegoen etxerik.

#### Gero Eitzara etorri zineten...

Alabak hazten hasi ziren, han igerilekuak egiteko obra hasi zuten... eta Eitzara etortzea erabaki genuen. 1970ean etorri ginen.

#### Zer moduz Eitzan?

Gustura gaude, guk hemen ez dugu kexarik. Eitza Zumarragako balkoia da, "Igeldo Txiki". Toki dotorea da hau. Trafiko eta zarata pixka bat dugu, baina ohituta gaude eta gainetik pasatzen ez badira, libre! Hona bizitzera etorri ginenerako lagun asko genituen hemen, asko etortzen baikin. Alabak mojetan ibili ziren eskolan eta lepoan hartuta ekartzen genituen. Goizeko 6etako mezara ere etortzen ginen Igartzatik, hura bai penitentzia... dagoeneko zerua irabazita izango dugu! Orduan genituen hankekin txakurrak bezala ibil-

tzen ginen, zuek kotxean ibiltzen zareten bezala.

#### Garai hartan ibiltari onak zineten...

Elkanotik Zarautzera joateko bide luzeagoa genuen oraindik, ordubetokoa. Gure amak-eta astoan egunero esnea eramaten zuten Zarautzera. Andra gaixo haiek majo sufritzen zuten, haiek bai egiten zutela penitentzia! Han ere goizeko 6etako mezara joaten ginen, Zarautzera. Lastoa lotu eta puntan su emanez egiten genuen argia. Ikusi gabe ez dago hori sinesterik!

“Gustura bizi naiz  
hemen, hor  
behean baino  
lasaiago”

Beste horrenbeste denboran bizimoduan horrenbesteko diferentzia ematen bada, ez dakit zer izango dugun! Orain arte beti hobera egin dugu. Afrikan ume gaixok lan egiten dutela eta... gu antzera ibiltzen ginen: bospasei urterekin dagoeneko ardiak ekartzen, behiak zaintzen...

#### Erosotasun handienak Eitzan ezagutu dituzu, beraz...

Ni hemengoa sentitzen naiz. Horrelako auzo txiki baterako, erronomia polita egiten da hemen! Gainera, aitona-amonekin ondo portatzen dira: hamaiketako ederra ematen digute eta hori eskertzekoa da. Sekula ez naiz oso parrandazalea izan, baina urtero ateratzen naiz festetan. Oraindik "salsilatxoak" egiten ditugu. Garai batean larunbatero joaten ginen Antiora lagunartean tertuliatxoak egin eta mokadutxoak hartzera. Gustura bizi naiz hemen, hor behean baino lasaiago. Han gauzak gerturago egongo dira, baina fruitategi ederra dugu eta Eroski ere bertan

dugu.

#### Auzoak hobera egin duela uste al duzu?

Hobetzen doa. Oraindik etxe zahar asko dago, baina garai batean behealde hau arratoi etxe bat zen. Zumak zuritzen ziren eta Eitza guztian bonbila bat besterik ez zegoen. Emakumeei beldurra ematen zien ilunduta herrira jaisteak. Haren ondoren egun "kapitala" ematen du! Bestalde, bizilagunak beti ondo konpondu gara eta ez dira beste toki batzuetan entzuten diren gauzak entzuten. Jendea gustura bizi da hemen, bestela auzoa ez litzateke horrenbeste haziko.

#### Ez duzu, beraz, sekula Eitzatik ateratzeko beharrik sentitu...

Baratzatxo eduki dut, mendian ibili naiz... sekula ez dut Benidormera-eta joateko ilusiorik izan. Mendia asko gustatzen zait eta hemen inguruko mendi gehienetan ibili naiz. Igartzako gizona anaia bezalakoa nuen eta Urbiara sarritan joaten ginen elkarrekin. Duela laupabost urte joan nintzen azkenekoz. Utzi egin beharko diogu... gu bakarrik bagara betiko, beste entzat tokirik ez da egongo!


#### Hemengo irratietan txisteak eta istorioak kontatzen ibiltzen zinela ere badakigu...

Hizketaldiren bat egiteko, kantatzeko... deitzen genuenoi sariak ematen zizkiguten eta deitu egiten nuen. Garai hartan ipuinak erraz kontatzen nituen. Han ibiltzen ginen sariak ateratzen!

#### Badakigu orain Jon Plazaolak, zure bilobak, nondik atera duen txisteak kontatzeko erraztasuna...

Nik baino erraztasun handiagoa du! Haren kontuak gustura entzuten ditut nik. Gure ustetan ondo ari da eta harro gaude berataz. Mutil koxkorra zenean makina bat ipuin kontatu nizkion. Asko gustatzen zitzaion nire istorioak entzutea, zerbaitegatik atera da halakoa!





Andoni Salamero

## Kandido Izagirre

Udaberria bete-bete, ingurua berde baino berdeago, heze baino hezeago eta hortik-handik eguzki printzaren bat agertzen denean, kukua kantari, Kuku eta kuku. Txori ona, txori txarra, zori onaren/txarraren mezulari, Kukuak jo du, ondo? Makur? Hala gabiltza gu, aspaldidanik, soka berean, Euskal Herrian bizi garen hainbat eta hainbat euskaldun. Hala dio esaerak: "euskara gehiago erabiliko bage-nu kukuak ondo egingo luke, kuku!". Ez da arrazoi makala, ez, esateko erraza, egiteko, egia izateko, antza denez, zaila. Horrelakoetan, iraganaz gogoratzea biderik onena ez bada ere, batzuek atzera begira eta lantuka denbora igarotzen dutelako, tarteka, egokia izaten da, besteek, aurretik zeuden hainbat euskaltzalek, egiten zuten lana goratzea eta haien eredu egokia norberarena eginez haragitzea.

Nik gizon apal bat aukeratu dut, gizon xume bat, baserritarra, Arantzazun fraile frantziskotar izandakoa, ama euskaratik edan eta asetu ostean, berriz ere egarberatzen zena, langile aparta, argia, ez bestelakoa, Koldo Mitxelenak zion bezala "euskal dialektologorik fin eta zorrotzenetarikoa bat", bai, horixe, Ipeñarrieta baserriko seme zen Kandido Izagirre.

Haren lanaren inguruan ez noakizue hitz egitera, horretan, batzuek ondo aipatu baitute zenbait ikerlanetan berak euskarari zion mira eta errespetua. Ikerlariaren baten lana aitatzearen Urretxu herriko guztiontzat ezaguna den Xabier Lasak Urretxuko eta Zumarragako euskaraz iazko abenduan burutu zuen filologoaren lan mardul eta joria irakur ezazue. Merezi du, edozein liburudendatan salgai duzue.

Kandidoz ezer idazten badut, bere jardunean, ikerlari lanetan aritu zenean, izan zuen kemenagatik eta adorea-gatik izan da. Arantzazu inguruko zenbat baserritarrekin topo egiten zuen bakoitzean, makina galdera egin, haien iturritik edan eta edan, beren jakituriak eta etorreraz asebe-teko zen, aspertu gabe. Latineko irakaslea omen zen eta inor gutxik jakingo zuen hura klaseak eman eta fraile lanak egiteaz gain, isilpean, "era klandestinoan" euskarari horrenbesteko mesedea egiten ari zitzaionik.

Apalak uztarri bakarra darama: isiltasunarena; bera du bidaide eta gogaide, isiltasunak ematen dio ikasiz, entzunez, mintzatuz, sentituz euskara eta bere zuztarretako muina ulertzeko gaitasuna, isiltasunak egiten du apala handi, haren itzala zabal eta luze izateraino. Kandidok

bazekien hori eta gurutzaldietan dabilen zalduna bezala, baserrietara jotzen zuen, gaztelu haietan bizi ziren aitona-ama eskuzabal eta aditu haiengana. Bazekien haiek desagertuz eta baserriak apurka hustuz euskaldunok gure guda galdua genuela. Ederkitxo idazten du hau Xabier Lasak bere "Urretxu eta Zumarragako Euskara" lanean, Aita Julian Alustizak San Juan baserria husten ikusten duenean: "Gaztelu bat gutxiago euskararentzat".

Urretxuar honek euskara zuen helburu, bazekien erroetara, sakonera jo aurretik azala, agerian zena, adarrak ondo ezagutu behar zirela, enbor bereko adarrak: euskalkiak eta berauen barruan azpieuskalkiak. Horrela ekin zion aldapa malkarreko lan eskerga bati Oñatiko, Tolosako, Ultzamako, Altsasuko, Erronkariko, Antzuolako euskara aztertuz, etengabe, eta berea egin zuen euskalkion-azpieuskalkion ezagutza, aita-ama batek bere haur jaiotze berriak lehendabiziko aldiz besotan hartzen eta magaltzen dituen legez.


Xabier Lasaren liburuan Kandidok idazten duen bezala: "...erleak ere aldiko kixitxo batekin biurtzen dira erlategira; baiña ibillian-ibillian ezti-mordoak egiten dituzte. Izan gaitezen gu ere erleak bezala". Erleak bezala behar zuen izan langile, langile nekaezin, lan bat amaitu eta beste bat hasi eta burutu eta hasi, etenezineko katean.

54 urterekin hil zen, 1967an, sutsu, euskararen eta Arantzazuren alde bere bizia eskainiz. Bera hil ondoren Villasantek argitaratu zuen "Arantzazu, Oñati eta inguruko herrien hiztegia". Zendu zenetik, denbora pasatu da eta Kandidoren, Bitoriano Gandiagaren eta Luis Villasanteren memorantzan Oñatin, apirilaren 29an, Santa Ana Antzokian ELKAR HEZI ikastetxeak oñatieraren inguruko lehen jardunaldiak antolatu ditu eta Oñati herriak omenaldi bat eskaini nahi die Kandidori, Luis Villasanteri eta Bitoriano Gandiagari. Herritar baten, Villasanteren eta Gandiagaren ekarpenaren berri jakin nahi baduzue, Paulo Agirrebalzategi eta Pello Zabala hiru ikerlari hauen lanen inguruan arituko dira hizlari. Ez da aukera txarra haiekin bat egin eta gure laguntza eta abaroa herritar eta euskaltzale zenari eskaintzeko.

Ea bada, iraganeko eredu garbiak, gogoangarriak haragitzen ditugun. Nire aldetik, Kandido, zorionak zuri bihotzez eta eskerrik asko, bitza denboran zehar zure lanaren eztiak gure barruak goza.



# autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako mintegiak



Informatzeko eta izena emateko:

**902 252 595**

[www.miramondigital.com](http://www.miramondigital.com)

[cursos@miramondigital.com](mailto: cursos@miramondigital.com)

## Nola egin online finantza erakundeekiko eragiketak

**Maiatzak 12**

Ordainketak, transferentziak, mugimenduak,... **Edozein unetan eta banketxera joan beharrik gabe** egin ditzakezu zure eragiketak Internet bidez, diru eta denbora gutxiago erabiliz.

## Nola ezarri Merkataritza Elektronikorako sistemak

**Ekainak 9**

Erosteko eta saltzeko Internetek aukera asko ematen dizkizu. Negozio edo enpresa txikia baduzu, Merkataritza Elektronikorako sistemak nola aplikatu ditzakezun azalduko dizugu eta **nola baliatu Internet zure produktua segurtasun eta konfiantza osoz saltzeko.**

**Goierri - Urola Garaia**

**ORDIZIA** Goierri Lanbide Eskola

Orduetgia: **18:00-20:00**

Antolatzailea:




**Miramón**  
Enpresa Digitala


Sustatzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa





The advertisement features a background of stylized daisy flowers in white and black. Scattered throughout are several vintage cars from the mid-20th century, including convertibles and sedans. In the center, a dark-colored picnic blanket is laid out. A speech bubble next to the blanket contains text. The main headline is in large, bold, black letters.

# UDABERRIA ODOL BERRIAREN ITURRIA BALIA IZAZU GURE ESKAINTZA BEREZIAK!

✿ Gure eskaintza bereziaz gain, PICNIC-eko burusi bat oparituko dizugu, soilik aurrekontua eskatzeagatik\*

Hurbilen duzun  
sukurtsalean  
itxaroten  
zaitugu


 **LAGUN ARO**  
SEGUROS - ASEGURUAK

Beti zugan pentsatzen



# ZENBAT BURU HAINBAT ABURU

Zer moduz daramazu eguraldi goibela? Eguzki faltak kalte egiten al dizu?



**Jose Antonio Taboada**

Ez dut inongo arazorik eguraldiarekin, nahiz eta dagoeneko pixka bat nazkatuta egoteko motiburik badugun. Ezin dugunez ezer egin honi aurre egiteko, ez du haserratea merezi. Gainera, nahiago dut hotza beroa baino. Izan ere, sutegian lan egiten baitut.




**Elena Niño**

Baserritarrak ere nazkatuta gaude dagoeneko. San Isidro heltzeaz dago eta eguzkia atera behar da behingoz, bestela uzta ustelduko da. Bareak eta karakolak besterik ez daude! Euri asko egin du, baina lehenbailehen eguzkia ateratzen bada, gaitzerdi.



**Rafael Sierra**

Zer egingo dugu bada! Goikoak nahi duena egiten du eta bere esku dago munduan gertatzen dena. Gainera, laster ona egingo duela uste dut. Egia esan, berdin zait zer eguraldi egiten duen.



**German Sedano**

Ez dut arazorik eguraldiarekin. Ohituta gaude. Egia esan, azken urteotan egin duen eguraldia ez da normala izan, Gaztelan geundela zirudien. Garai batean okerragoa zen, egunero egiten zuen xirimiria. Ni gustura nago, ez dut eguzkia faltan botatzen. Emazteak bai, ordea.

Muntaiak eta Instalazioak Elektrikoak  
**HERCE**  
Siderolaitasun, S.A.  
Muntaia eta instalakuntza elektrikoak  
Enpresa mantenua  
Argiteria publikoa  
Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50  
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66  
Mugikorra: 656 703 392  
20700 URRETXU

**TABERNA**  
*Guiretu*  
**JATETXEA**  
Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19  
ZUMARRAGA

*belor zain*  
Belardenda, dieta eta errejimen elikadura  
Mediku-homeopata kontsulta  
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

**Denda alokatu edo saltzen da Antzuolan**  
Martxan dagoen argazkidenda-bitxitegia  
943 78 70 66  
635 757 271

**ETXABURU**  
merenda-lekua  
  
Santa Barbara bidea - ☎ 943 72 22 77 - URRETXU

**BIONA**  
AROTEGIA  
Altzariak neurritan  
☎ eta faxa: 72 02 55  
Erratzu, z/g URRETXU



## Xamber hiruk Musika Eskolan ikasitakoa



Maiatzean sartzeaz, asko eta asko izango dira datozen asteetan ezkonduko diren Urretxu eta Zumarragako bikoteak. Hauek guztiek sekulako lana hartu dute egun handia prestatzen: jatetxea hartu, gonbiteak luzatu, musikariei deitu, jantziak erosi, ezkon-bidaia prestatu... Ezkontzen inguruan makina bat jende lan egiten duela ikusirik, Xamber Hirukoteko Arantzazu Calvok, Jasone Camarak eta Jon Goenagak euren eskaintza alor horretara egokitzea erabaki dute.

Arantzazu, Jasone eta Jon Secundino Esnaola Musika Eskolako ikasle ohiak dira: Jonek pianoko erdi mailako ikasketak (grado medio) egin zituen, Jasone akordeoilaria da (nahiz eta beste instrumentu batzuk jotzen ere bada- kien: biolontxelo, pianoa eta trikitixa) eta Arantzazu bibolinjolea da.

Arantzazuk azaldu digunez, bera eta Jasone izan ziren taldea sortzea erabaki zutenak. "Kalean elkartu ginen batean, musika ikasketak egin ditugunez, jendaurrean jo behar genuela erabaki genuen. Antio hor egoteak taldea sortzeko aukera eskaintzen zuela eta hari-laukotea sortzea



## otea: erakusteko gogoz

pentsatu genuen. Baina hemen hari-instrumentuak jotzen dituen oso jende gutxi dago eta, azkenean, pianojole bat hartzea erabaki genuen. Jonekin gogoratu ginen eta halaxe hasi ginen".

Euren burua ezkontzetan jotzeko eskainiz, emanaldiak lortuko zituztela pentsatu zuten. "Inguruko jendea ezkontzen hasi zen eta Antion udaberrian astero ezkontzak daudela konturatu ginen. Zer edo zer berezia eskainiz gero, ez betiko organoa, emanaldiak lortuko genituela pentsatu genuen. Taldea Antioko ezkontzetan pentsatuz sortu arren, orain arte ezkontza zibiletan soilik jo dugu".

Ezkontzetatik kanpo ere jotzeko prest daude, noski. "Zerbaitetarako egon gara ikasten horrenbeste urte, baina hemen

**"Musikari klasiko asko gaude herrian, baina ez gaituzte ezagutzen"**

nahiko zaila da kontzertuak lortzea: asko mugitu behar duzu, zeure burua ezagutzera eman... Hori da gure asmoa: gure burua pixka bat ezagutaraztea eta ea hemendik aurrera emanaldi gehiago lortzen ditugun".

Izan ere, oso zaila omen da musikatik bizitzea. "Musikari klasiko asko gaude herrian, baina ez gaituzte ezagutzen. Musika Eskolatik ezin garela irten dirudi, baina horri aurre egitea erabaki dugu: herrian bertan zer edo zer egitea eta musika klasikoak ezagutaraztea. Dena den, Jonen moldaketei esker, denetik jotzen dugu. Hori dela eta, ia edozer egiteko prest gaude: bazkari edo afari aurreko cocktail-ean ere jotzeko, afa-

riak amenizatzeko, ekitaldi instituzionaletan jotzeko... Bestalde, musikariarena lanbidea dela aldarrikatu nahi dugu".

Arantzazu, Jasone eta Jon gustura dira izan duten harrerarekin. "Duela ia urtebete elkartu ginen, baina hilabete batzuk pasatu ziren abian jarri ginenerako. Izan ere, jendaurrean hasi aurretik partiturak lortu behar dira, entseiatu, herrian kartelak ere jarri genituen... Lehen saioa iazko azaroan eskaini genuen: asteazken batean deitu ziguten larunbatean ezkontzen zirela esanez. Presaka eta korrika prestatu genuen arren, ondo atera zen. Izan ere, bikoteak gustuko zituen kantak jo genituen. Emakumearen Egunean ere jo genuen, Urretxuko Udaletxean, bi udalek deituta".

Hala ere, nahi baino kontzertu gutxiago eskaini dituzte. "Zorte txarra izan dugu: jatetxe batetik deitu ziguten San Balentin egunean jotzeko eta bi aste gauero entseiatzen eman ondoren, azken unean ez joateko esan ziguten. Errepertorio zabala prestatzeko balio izan zigun, gutxienez: ezkontzetarako obra klasikoak, Mendelssohn, Mozart, Ken7, Hertzainak...".

Jendea ez omen dago oraindik inor ezkontzetan jotzeko deitzera ohituta. "Ezkongaien koadrilako baten batek zer edo zer jotzen duenetan soilik jotzen da ezkontzetan, bestelakoetan ez. Dena den, jendeak geroz eta ezkontza politagoak eta bereziagoak nahi dituzte, geroz eta emanaldi gehiago izatea espero dugu. Orain arte ezkongaien senitartekoek deitu digute beti, gure emanaldia opari modukoa izan da".

Xamberrekoek argi utzi nahi dute, gainera, emanaldia nolako izango den bezeroekin adostea atsegin dutela. "Elkarlanean prestatzen ditugu emanaldiak eta ezkongaiak zein musika estilo atsegin duten jakitea gustatzen zaigu. Edozertarako prest gaude, jendeak deitu dezala lasai".

**MURUA**  
Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.  
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU  
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B  
Tel: 943 72 16 63  
ZUMARRAGA



*Lanbidea*

- Dietetika  
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



**BAPRI**  
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak,  
katuak, dordokak...

Urdaneta, 3 ☎ 943 72 61 13  
ZUMARRAGA



**KABIA**  
JATETXEA

Legazpi, 5  
☎ 943 72 62 74  
ZUMARRAGA





## Gotzon Aranburure

### Aranburu herrian gertatzen den oro jasotzen

Argazkiak egiteko afizioa aspaldidanik du Gotzon Aranburuk. Askotan ikusten dugu kalean bere kamera lepotik zintzilik duela, eta azkenaldi honetan bideo-kamera ere erabiltzen duela konturatu gara. Gainera, kartelak bildu eta gordetzeari ere ekin diola jakin dugu. Bere eginbehar hauetaz hitz egiteko jo dugu Aranbururengana.

**Noiz eta nola hasi zinen bilketa lan honetan?**

Beno, bi arlo desberdin dira. Argazkiak egitea duela hogeituro hartutako bizioa da, batez ere prentsan lanean hasi izanarekin lotua. "Egin" egunkariko kronika lokala egiten nuenean testuak eta argazkiak neuk egin behar nituen, eta lan bat bestea bezainbat gustatzen zitzaidala konturatu nintzen. Ikastaro bat egin nuen Vierbucheerekin Kultur Etxean, argazki liburuak erosten hasi... eta orain arte. "Gara" egunkarian ere, erreportaje bat egitera bidaltzen nindutenean argazkiak nik neuk egiten nituen. Hamabost kamara erabili ditut urte hauetan, egun dauzkan digitaletara iritsi arte. Bideo-grabazioekin orain dela urte pare bat hasi nintzen, ekitaldi batzuetan soinua hartzea ezinbestekoa delako, esaterako bertso-saioetan. Eta kartelak biltzea ere kontu berria da. Nolabait ere, kazetaritzan aritu izanaren ondorio da. Ahalik eta dokumentazio gehien izan behar du kazetariak eskuetan, eta kartelak dokumentuak dira, baina kasu askotan alderdi artistikoa ere badaukate. "Euskal Herriko kartelak" liburu-bilduma ezagutu nuenean hartu nuen kartelak biltzen hasteko erabakia.

**Kartelak baldintzaren bat behar al dute zure bilduman izateko ala guztiak jasotzen al dituzu?**

Herrian ikusten ditudan denak biltzen saiatzen naiz, baina lortu ez. Ezinezkoa da, horrenbeste dira eta ateratzen direnak. Zenbait lagunek kartelak eman egiten dizkirate, aurretik esanda dauzkat eta. Baina beste asko paretetatik kentzen ditut, beti ere aurkezten duten ekitaldiaren eguna igaro eta gero. Ez da oso txukuna, baina beste biderik ez dago. Kartelak ezartzen dituzten alderdi politiko, kultur-talde eta bestelako talde eta erakunde guztietan kontaktu bat eduki nahiko nuke, ateratzen dituzten kartelen ale bat niretzat gordetzeaz arduratuko litzatekenea, baina ez naiz iristen.

**Afizio hauek lan dexente emango dizute: gauzez diren ekitaldietara joan beharra, sailkatze lana... zer diote etxekoek?**

Argazkigintzak nire lanarekin zerikusizuzena du eta ez da sakrifizioa. Argazkiak egiteaz ez naiz nekatzen, ezta ikusteaz ere. Kamera





## ekin, bere artxiboan

### saiatzen da argazki, bideo eta kartelen bidez

digitalarekin, gainera, gordetze eta sailkatze lanak erraztu egin dira; disziplina pixka bat behar da, eta hori lantokian ikasi dut. Kontuan izan DVD bakar batean bi mila argazki sartzen direla. Hori bai, bakoitzak bere izena eta data izan behar du, gero erraz aurkitzeko. Bideo digitala lantzea, berriz, oso nekoso da, eta horrek denbora asko kentzen dit, gehiegi. Eta kartelek, oraingoz, ez dute toki asko behar. Gainera, kartelak konpontze lana esku lana da (zelo zatiak kendu, garbitu, kartulinetan ezarri...) eta ondo etortzen zait, lasaigarria da. Etxekoak ez dira asko kexatzen, kasu bat kenduta: beraiekin kalean noala kartel intergarri bat ikusi eta kentzen hasten banaiz asaldatu egiten dira, normala den bezala. Zer egingo zaio bada. Herritarren batzuek ere ikusiko ninduten paretetatik afitxak kentzen, baina uste dut konturatzen direla jasotzeko hartzen ditudala, ez lurrera botatzeko.

#### Zein helbururekin egiten duzu lan hau?

Helburua, bi hitzetan esateko, ondare kulturala jasotzea da. Hau ere kaze-taritzan ikasi dut: norbait ez bada arduratzten garaian garaiko dokumentuak jasotzeaz, aldizkariak, kartelak, edo panfletoak direla, dokumentu hauek galdu egiten dira. Instituzioak arduratzen dira dokumentu garrantzitsuenak gordetzeaz, hala nola liburuak eta egunkariak, baina zabalkunde txikia dutenetara ez dira iristen. Adibide bat: Lazkaoko Juan Jose Agirre beneditarra ez balitz aritu urte luzez kartelak eta panfletoak biltzen, orain ezinezkoa izango litzateke fondo eder hori kontsultatzea. Eta nik ez dut dudarik egiten, kartel bat ondare osoaren zati txiki bat da. Beste adibide bat: bertsolaritza kultura da? Bai. Zumarraga-Urretxun bertsolari txapelketa bat egin izana garrantzitsua da? Bai. Bi faktore horiek batuta, bukatu berri den txapelketa osoa grabatzera eraman naute.

**Orain arte bilketa lan hau ondo egin dela ala gauza gehiegi jaso gabe gelditu**

#### direla uste al duzu?

Jakina, gauza asko gelditu dira bildu gabe. Baina ezin da bestela izan. Denera iristerik ez dago eta nonbait jarri behar da muga, bestela zoratzeko arriskua dago. Esaterako, joan den hauteskunde kanpainan gure herriotan izan diren ekitaldi guzti-guztien argazkiak eta grabazioak egitea merezi al zuen? Eta kartel guztiak eta eskuorri guztiak biltzea? Nik uste baietz, helburu ideal bezala. Baina, erreali-

**“Nire lanaren helburua, bi hitzetan esateko, ondare kulturala jasotzea da”**

tatean, batzuetara iritsi naiz eta beste batzuetara ez. Beasain-Durango errepideko lanen fase guztiak argazkitan hartu behar al ziren? Bai, eta hori lortu dut. Eta herri barruan egiten diren obra garrantzitsu guztiena? Baita ere, baina ez naiz iristen. Eta kirol ekitaldiena? Erantzun bera. Eskerrak herriko kronistek lan hauek ondo egiten dituzten, bestela ondare hori galdua litzateke.

#### Egindako lana, ondarea... nahikoa estimatzen al ditugu euskaldunok?

Euskaldun batzuek bai eta beste batzuek ez. Espainolek gu baino gutxiago estimatzen dutelakoan nago, eta frantsesek eta ingelesak gehiago. Kultur mailarekin lotuta dagoela iruditzen zait. Angel Cruz Jakak egin duen lan eskerga eskertu diogu? Ez merezi bezala, nahiz eta orain badirudien zerbait egiten ari direla instituzioak. Dena den, lan hau ez da egiten eskerrak jasotzeko, baizik eta norberak bere buruari jarri dion nolabaiteko obligazioa betetzeko.

#### Herriko beste “biltzaile” batzuekin harremanik ba al duzu?

Argazkilariak talde horretan sartzen badituzu, bai, baina kartel biltzailek ez dut ezagutzen, eta nahi nuke. Badakit jende askok dituela kartel eta panfleto zaharrak ganbaran gordeta, eta hemendik eskatzen diet ez ditzatela bota zakarrontzira; nik gustura asko jasoko nituzke. Alderdi politikoei eta talde kulturei ere kartelak gorde ditzatela eskatzen diet, pasatuko naiz eta bila. Madrileko elkarte batekin daukat harremana, eta tarteka-marteka trukeren bat egiten dugu, errepikatutako kartelak ditugunean. Euskal Herriko kartel politikoko asko dauzkate, batez ere Trantsizio garai-koak.

#### Zenbat kartel, bideo eta argazki dituzu?

Kartel kontuan hasi berria naiz eta gutxi ditut oraindik. Bostehun inguru. Bideoak ere gutxi, baina argazkiak milaka eta milaka, nahiz eta hauetako asko positibatu gabeko negatiboak diren.

#### Bereziki bitxia iruditzen zaizun zer edo zer?

Kartelei dagokionez, ez daukat harri bitxirik. Liburutegi nahiko ona ari naiz osatzen, batez ere euskarazko liburuei eta argazkilari famatuen liburuei dagokionez.

#### Zure artxiboa erakusteko asmorik ba al duzu?

Oraindik ez du halakorik egitea merezi. Iritsiko da momentua, behar bada, besterik ez bada erreproduzioak erakusteko. Kartelak erakusteko arazo handi bat dago; tokiarena. Ganbaran, bata bestearen gainean gordetzeko ez da toki askorik behar, baina jendaurrean ipintzeko, horma batean bata bestearen atzetik... Hori bai, norbaitek kartelen bat behar badu eskolako lana egiteko edo nolabaiteko ikerketa lanerako, esatea dauka, eta erakutsiko dizkiot. Nire bilduma ez da lagunak eta nik bakarrrik gozatzeko.



# ZUEK BAI JAKINI!

## Ramon Yurrebas

Herri kirolak indar handia zuen garaian Urretxu eta Zumarragak ere txapeldun handiak eman zituzten. 40ko hamarkadan Aitxu baserriko Ramon Yurrebasok "Agiñeta" handiaren lekukoa hartu zuen eta urte luzetan aizkora-jokoan punta-puntan aritu zen. "El hombre eléctrico"-ren ospeak Euskal Herriko mugak gainditu zituen eta TVEn ere erakustaldia eskaini zuen.

### Zer diozu zure familiaz, Ramon?

Aita bizkaitarra nuen, Urolako Trenbidea egitera etorri zen Urretxura duela 80 bat urte. Berak, Etxeberriak, Bernaolak... hemen neska ezagutu eta hementxe gelditu ziren. Zortzi anaia-arreba ginen: lau jaio ziren lehenengo eta gero anaia bixkia eta ni. Anaia bixkia Irimon enkargatua izan zen eta hezurretako gaitzak jota hil zen. Gogorra izan zen, baina jakinaren gainean geunden.

### Nola gogoratzen duzu zuen haurtzaroa? Egungo haurrekin alderatuz zeharo ezberdina izango zen...

Bai motel! Zortzi urterekin morroi joan nintzen. 9-10 urterekin, Agiñetan morroi nintzela, astoan esnea hartu eta kalera jaisten nintzen etxez etxe esnea banatzera. Hala pasatu nituen urteak... soldadu joan arte morroi egon nintzen Urdanbideta baserrian. Soldadutzatik etorritakoan ere Urdanbidetan jarraitu nuen, azkenerako nagusia nintzen.

### Eskola gutxi zapalduko zenuen...

Kaleko buelta egin eta arratsaldean bidaltzen gintuzten. Agiñetara joaten ginen, apaizarengana. 11 urte nituela, gure aita zenak zer edo zer egitea nahi zuen, Hermanoetara joan nintzen hamar hilabete. Hura izan zen nire batxilergo guztia. Gose urteak ziren eta baserrira itzuli behar izan nuen.

### Gerrak umetan harrapatu zintuen...

9 urte nituela harrapatu ninduen, baina gogoratuko ez dut ba! Agiñetatik Oletara idiekin garotara joaten ginela eta tiro hotsa egunero entzuten genuela gogo-



## o, aizkolari arina

ratzen dut. Izan ere, Elgetan egon zen frentea denbora askoan. Juan Joxe Badiolak nola alde egin zuen, gure aita mendian ezkutatu zela, goiz batean Aitxutik gora eskolara gindoazela gizon bikaina tiroz hilda ikusi genuela... gogoratzen dut. Atzokoak baino errazago gogoratzen ditut ordukoak...

### Nolatan hasi zinen aizkoran?

Nire nagusia zalea zen eta Agiñetaren bizilaguna eta laguna, gainera. Hark atera ninduen ni aizkolari bezala,

*“Basarrik El hombre eléctrico de Urretxu idatzi zuen eta izen horrekin gelditu nintzen”*

harengatik ez balitz nik pentsatu ere ez nuen egingo aizkolaria izango nintzenik. Ibilitakoa zen eta aizkolaria nintzela ikusi zuen.

### Zure lehen aurkaria Leturia auzoko Vitoriano Jauregi izan zen...

Bitorianok Agiñetaren zerrategian lan egiten zuenez, Agiñetak ez bataren eta ez bestearen alde ez zuela egingo esan zuen. Hala, Keixetaren etxera, Urrestillara, joan nintzen prestatzera. Urretxuko frontoian lehiatu ginen. Sei pezeta kobratu zuten sarrera gisa eta lepo bete zen frontoia! Vitoriano nire aldean mutil handia eta zaharagoa zen, baina ez zen aizkolaria eta irabazi egin nion. Orduntxe 18 urte beteta nituen, mutil koxkorra nintzen.

...

Bigarrenagoan, handik urtebetera, abantaila eskatu zidan: saioa Agiñetarekin prestatzea. Zumarragako Udalak irabazleari 500 pezeta eta galtzaileari 60 duro emango

zizkiola esan zuen. Garai hartan sekulako dirutza zen. Bigarrenago hartan errazago irabazi nion. Vitorianok eskua eman zidan eta zera esan zidan: “Ramon, ni baino gehiago haiz, barkatzen diat eta hemendik aurrera ahal dudan guztia lagunduko diat”. Orduetik lagunik handienak gara.

### Hortik aurrera aizkoran burubelarri arituko zinen...

Hortik aurrera erakustaldiak hasi ziren. Jendeak aizkolaria nintzela ikusi zuen eta soldadu joaterako onenekin jokatzeko nuen. Santa Lutzitan Kortari irabazi nion hemen, Gartziazenari ere bai, biren kontra ere askotan jokatu nuen... Klasea nuen, jendeak lagundu zidan eta denbora gutxian gora egin nuen. Arerioak handiak ziren nire aldean, baina ni bizkorra nintzen. Berezkoa nuen eta kirolariak berezotasun hori behar du. “El hombre eléctrico” deitzen zidaten eta oraindik ere askok gogoratzen didate.

### Nork jarri zizun izen hori?

Basarrik. La Voz de España egunkarian “El hombre eléctrico de Urretxu” idatzi zuen eta izen horrekin gelditu nintzen. Lehen apostua jokatu nuenean “Yurrebaso de Zumarraga” idatzi zuen eta Felipe Elgarrestak, urte askotan Urretxuko alkate izandakoak, Basarriari gutuna bidali zion Yurrebaso Urretxukoa zela esanez.

### Erakustaldietan zure garaiko aizkolari onenei irabazi zenien, baina apustuetan ere parte hartuko zenuen...

Bueno... behin ezkonduz gero, batere ez. 31 urte bete nituen egunean ezkondu nintzen eta geroztik ez dut apusturik jokatu. Erakustaldiak, bai, ordea, gelditu gabe.

### Zein da bereziki gogoratzen duzun apustua?

Fenomenoena Txurruka eta nire artekoa izan zen. 1953ko urtarrilaren 18an jokatu genuen Azkoitiko frontoian. 2.200 lagun sartu ziren frontoian eta beste asko kalean gelditu ziren tokirik gabe. Hiru kolperengatik galdu nuen. Hura izan zen garai

## EDURNE

GIZONEZKOEN  
JANTZIDENDA ESKUZ  
ALDATU NAHI DA

☎ 943 72 14 17



Edergintza

Edergintza tratamenduak  
Depilazioak  
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13



ALTZARIAK

MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28  
URRETXU

centro óptico  
JAVIER Arratibel  
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA  
☎ 943 72 54 84



ARKUPE TABERNA



# ZUEK BAI JAKINI!



Goñi eta Yurrebaso, lagun minak, 1953an Labrit pilotalekuan Luxia eta Kortari apostua jokatu eta irabazi aurretik.



Latasa (erdian), Polipasori Tolosan apostua irabazi zion egunean. Berakoetxea eta Yurrebaso laguntzaile izan zituen.

hartako apustu ikaragarriena. Txikito de Arruizi, berriz, aizkoran eta korrikan jokatu nion. Tolosako zezen-plaza bete genuen: 5.000 lagun bildu ziren. Korrika ez nintzen ondo moldatzen, baina kirolari gogorra nintzen: zortzi enbor ebaki eta gero, 8 kilometro 32 minututan egin nituen. Apustu hura ere galdu egin nuen. Latasarekin, Goñirekin, Baleztenarekin... ere apustuak jokatu nituen.

## Gaurkoaren ondoan, alde ederra...

Bueno... Orduan ez zen apusturik egiten 1.000 lagun ez zen plazan. Azken urte hauetan sekulako apustuak egin dira, baina jende gutxi joan da ikustera. Zarauzko azkenekoa, berriz, jendez ondo egon zen.

## Herriko jende asko joango zen zure apustuak ikustera...

Gartziarenari soldadu joan aurretik Tolosan jokatu nion apustura kamioian joan ziren! Udazkenean 59 urte egingo du apustu hura jokatu gurela.

## Telebistara ere joan omen zinen...

Ni izan nintzen Madrileran joan zen lehen aizkolaria. Bi enbor ebakitzeko bizkorrena behar zuten. Latasa edo ni eramango gintuztela eta ni eramanez ninduten. Geroztik "Feria del Campo"-n, zirko batean... aritu nintzen, lau bat aldiz izan naiz Madrilen. Valladoliden, Santanderren, Oviedon... ere izan naiz aizkoran. Bizkorra eta ikusgarria nintzen, erakustaldietarako eta lan txikiatarako niri deitzen zidaten lehenengo. Oraindik gogoan dut 1953an

Idiazabalera Luxiari jokatzera joan eta "mutil koxkor honekin Luxiari jokatzera etorri al dira?" esan zutela niregatik. Nik 28 minututan ebaki nituen eta berak 31 minututan. Hura gizon handia zen, baina ez zen azkarra. Gainera, apustua jokatu ondoren kilo batzuk hartzen zituen. Ni, ordea, beti 80 kilotan egoten nintzen. Urtebete hanka hautsita jan eta edan egon eta kilorik ez nuen irabazi. Jubilatuta ondoren hartu nituen nik kiloak!

## Norekin zenuen lehiarik handiena?

Latasarekin. Erakustaldi askotan elkarrekin egokitu ginen eta apustua ere jokatu genuen. Nire pare xamarrekoa zen. Goñi zenarekin ere asko ibili nintzen. Hemen bizi zen, Zumarragan. Hura nuen lagunik handiena eta baten bat eramateko esaten zidatenean hura eramaten nuen.

## Nola entrenatzen zenuen garai hartan?

Mendira asko joanda, ibiltzera edo arbola zaharren bat ebakitzera. Apusturen bat nuenean, berriz, Agiñetarekin aritzen nintzen. Hura izan zen nire erakuslea. Jaiero erakustaldia izaten nuenez, egun berean bi erakustaldi egindakoa naiz, ez neukan asko entrenatu beharrik. Bizkaitik asko deitzen zidaten, nire abizenagatik edo, baita astegunetan ere! Nafarroan ere asko ibilitakoa naiz.

## Bestalde, garai hartan asko jateko ohitura omen zenuen...

Gehiegi. Haragia eta arrautzak jan behar zirela eta barazkiak begiratu ere ez zirela egin behar uste zen. Bijilia egun

batean egun guztia arrautzak jaten eman nuen: gorringoa azukrearekin, tortila... Hiru bat dozena jango nituen! Arrautza gutxien jaten nuen egunean, hamar bat gorringo jango nituen. Baita egunero hiru

**"Urte mordoa pasatu nituen aizkora jokoan: 17rekin hasi eta 47rekin utzi..."**

txuleta ere. Arraina ez omen zegoen jaterik eta ura edaten ere ez ziguten uzten, dena aldrebes: ez medikuarengana joan, ez masajea hartu... Sasoi galanta genuen eta denak on egiten zigun.

## Noiz utzi zenuen aizkora jokoan?

47 urterekin. Alabak, Kizkitzak, "aita, ez al dizu lotsarik ematen? Gazteagoak badaude eta utzi izeaiezu haiei!" esaten zidan. Beste batzuk gehiago zahartuta badabilta, e!: Arrospide, Ugarteburu, Mindegia... Dena den, ez du merezi. Adin horretan oso preparatuta egon behar da. Baserrian bizi dena bai, baina kale gorrian bizi denarentzat zailagoa da. Hala ere, urte mordoa pasatu nituen: 17rekin hasi eta 47rekin utzi...

## Saioak ikustera joango zara oraindik...

Jokatzen al da ba orain apusturik? Erakustaldietara ez naiz joaten, bertan



# ZUEK BAI JAKINI!

Txurruka, Gartziarena, Yurrebaso eta Kortaberri aizkolariak urretxuarrari herriko frontoian omenaldia egin zitzaion egunean.



tokatuz gero bakarrik. Galduta dago gure kirola eta zaila izango da buelta ematea. Beste gauza batzuetarako bezala dirua emango balute jendea preparatuko litzateke, baina... Aizkorak telebistari esker eusten dio bizirik, bestela, kitto!

## Zure garaian, ordea, irabazia izango zen...

Bai, bai. 1953an Iruñeara erakustaldia egitera joan eta 5.000 pezeta eman zizkidaten. Orduan langile batek urte erdia lan egin behar zuen 5.000 pezeta irabazteko. Normalean 1.500-2.000 pezeta kobratzen genituen.

## Aizkora jokotik kanpo ere egur artean lan egin zenuen...

Urte batzuk kamioilari pasatu nituen, baina azken urteak basoen salerosketan eman nituen. Orain, berriz, batere ez! Hamar urte daramatzat jubilatuta.

## Eta, zertan ematen duzu eguna?

Hortxe, asmatzen dugu... Tabernara joan, kafea hartu, kopatxo bat edan, partida batzuk jokatu... Nafarroara joaten gara asko andrea eta biok, Arronitzera. Koinatua bertan dut, lagunak ere bai...

## Frontoira ere joaten omen zara...

Orain, gutxiago. Orain dela 30-40 urte astean bi aldiz joaten nintzen:

Bergarara, Eibarrera... nora ez! Azkarateren eta Gallastegiren lagun handia naiz. Gero Galarretara joaten hasi ginen. Lehengoan andrearekin joan nintzen Donostiara "mano a mano", bera eskaparateak ikustera eta ni frontoira. Niretzat kirolik ederrenak txirringularitza eta pilota dira. Gehien atsegin dudana txirringularitza dela esango nuke. Euskal Herriko Itzuliko 3-4 etapa ikustera joaten naiz urtero eta bukaera ia urtero ikusten dugu, bertan bazkaldu ondoren.

## Iloba txirringularia izan zenuen...


Hura ikustera makina bat tokitara joan ginen, baita Galiziara eta Bartzelonara ere! Bere aita eta biok anaiak eta, gainera, lagunak gara.

## Futbola ez al duzu gustuko? Iguntze biloba futbolaria duzu...

Hemen tokatzen denean, batzuetan bere partidak ikustera joaten naiz. Zer esango dut ba... harro nagoela. Poza ematen dit.

## Bertsozalea ere ba omen zara...

Handia gainera, garai batean bertsolari eta trikitilari txapelketa guztietara joaten ginen. Lagunik handienetakoak hiru bertsolari ditut, hirurak zaharrak: Imanol Lazkano, Joxe Agirre eta Joxe Lizaso. San Juanetan Agirre eta Lazkano etortzen dira kantatzera eta Udalaren kontura bazkaria debalde izaten duten arren, gurekin etortzen dira soziedadera.



HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61  
Leturiatarren enparantza, 2  
ZUMARRAGA



Keros Enmarkatzeak  
Arte ederrak  
Dekorazioa  
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

PLAZAOLA  
ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA  
943 72 13 70



arropa informala

Barrenkale  
Urretxu  
943 72 40 57



ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91  
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



## Nora doaz m

### Ostadarreko eta Goierriko kideekin hitz egiten

Maiatzaren 22an Iñaki Beitiaren Omenezko IX. mendi martxa izango da. Urtero bezala, eguraldiak laguntzen badu behintzat, jende andanak parte hartuko du martxa honetan. Baina, gure bi herriotan maiatzeko egun handian dirudien bezainbesteko mendizaletasuna al dago? Zein egoera bizi dute mendi martxa antolatzen laguntzen duten Goierri eta Ostadar mendi taldeek? Bi galdera hauen erantzunaren bila, Goierriko Jose Mari Aztiriarekin eta Ostadarreko Luis Albisuarekin izan gara.

Aztiriak eta Albisuak urte asko daramatzate Goierri eta Ostadarren lanean. Biek oso argi dute zergatik hartu zuten konpromiso hori: "Zumarraga eta Urretxun mendizale-tasuna bultzatzeko", hain zuzen ere.

Helburu horrekin, bi mendi taldeek hilean behin mendi irteera bana antolatzen dute eta hainbat ekitaldi ere bai: ikastaroak, diapositiba emanaldiak, Irimora Igoera... Horretaz gain, Ostadarrek mate-

rialak eta liburuak eskuragarri ditu.

Mendi taldeetako kideek ahalegin handia egiten dute ahalik eta eskaintza erakargarriena prestatzeko, baina gazteen parte hartzea geroz eta txikiagoa omen da. "Ez dakit zaletasuna aldatu den edo ez, baina bistan da geroz eta jende gazte gutxiago dabilela taldeotan", dio Jose Mari Aztiriak. "Lehen adina edo gehiago gazte dabil mendian, baina ez dute gure irteeratan parte hartzen. Eskoletako mendi taldeetan ere asko jaitsi omen da partehartzea".



**Luis Albiua:**  
"Orain errazagoa da mugitzea eta gazteak euren kasa joaten dira"

Luis Albisuak gazteen parte hartzearen beherakadaren atzean gizartearen emandako zenbait aldaketa daudela uste du. "Orain gazte jendeak autoa du eta, gainera, askoz ere informazio gehiago dago eskuragarri: liburuak, emanaldiak, telebista, internet... Errazagoa da mugitzea eta gazteak euren kasa joaten dira".

Mugikortasuna erraztu denez, jendeak urrutirago joateko aukera ere badu. "Lehen Alpeetara joan aurretik Piriniotan asko ibiltzen ginen. Orain askoz ere lehenago ematen dira pausoak. Hori ez da txarra, baina behar adina prestatu gabe joatea bai. Batzuk nahikoa prestatu gabe ibiltzen dira; mobila, aseguruak, erreskateak... daudela eta, errespetua galdu diote mendiari".

Geroz eta azkarrago, geroz eta urrutirago... Aztiriak eta Albisuak mendi taldeek Euskal Herrian zehar antolatzen dituzten txangoak aldarrikatu nahi dituzte. "Ezagutzen ez ditugun paraje pilo bat daude. Zenbat eta gehiago ibili, orduan eta argiago dugu ezagutzen ez ditugun toki asko daudela".


Gainera, Jose Mari Aztiriak taldean joatea norbere kasa joatea baino hobea dela azpimarratu nahi du. "Taldean joanda, puntu batetik irten eta bailara mordoxka pasatu ondoren, autobusa zain izaten dugu. Autoan joanez gero, autora itzuli behar da.





## mendizaleak?

### zuzan gara mendizaletasunaren bilakaerari buruz



**Jose Mari Aztiria:**  
"Mendira autoan joanez gero, ordea, ondoren autora itzuli behar da"

Gainera, hilean behin edo bitan herriko mendi taldearekin irtenda ere, beste bi aste-buru ditugu norbere kasa ibiltzeko".

Luis aurrekoarekin bat dator. "Bi taldeon martxak oso ondo prestatuta daude. Prestaketan aritzen direnek lan handia egiten dute, esperientzia handia dute eta askori bururatu ere ez litzaizkigukeen irteerak prestatzen dituzte. Irteera hauek Euskal Herria ezagutzeko aukera bikaina dira: ez dago gidatu beharrik, merkeak dira, gehie-

nak 18 urtetik beherakoentzat doan dira... Autonomiari lehentasuna emateagatik, jendeak aukera bikaina galtzen du".

Gazteek mendi taldeen irteeretan parte hartzen ez badute, taldeetako zuzendaritza lanetan zeresanik ez. Ostadar zuzendaritza berritu ezinik dabil, "beti jende bera agertzen baita batzarretara. Batzuek 20 urte baino gehiago daramatzagu atzetik jendea ez datorrelako. Jendeak lagunekin gure martxetan baino hobe pasatzea uler dezaket, baina eskalada gus-tuko duena, rokodromoa egitea nahi duena... mendi taldeko zuzendaritzan sartu behar-ko litzateke. Afizioagatik ari gara lanean eta gure afizioa ez da klub bateko zuzendaritzako kideak izatea, mendia baizik".

Luis Albiuak nahiko beltz ikusten du elkarteen etorkizuna. "Federatzeko talde baten kide izan beharra dago. Horregatik izango ez balitz, dagoeneko talde pila desagertuta egongo liriteke. Zorionez, jendeak kontzientzia apur bat badu

eta Euskal Herrian estatu espainiarreko federatu kopuru altuena dugu. Dena den, Ostadar desagertzeko zorian izan da pare bat aldiz; zuzendaritzakoak nekatuta zeudelako eta ordezkorik agertzen ez zelako".

Goierriko mendi taldea ez omen da sekula hain kinka larrian izan. "Keixa topera dabil eta berak hor segitzen duen bitartean ez da arazorik izango. Utziko balu, ordezkoren bat agertuko litzatekeela uste dut; nahiz eta ez lukeen Keixak bezain errelebu luzea eskainiko, ez eta horrenbeste dedikazioa ere".

## Beitia martxa, lehenengoz Belokitik

Ohiko irteeretan Goierrikoek eta Ostadarrekoek nahi baino jende gutxiagok parte hartzen badu ere, Iñaki Beitia mendi martxan partaidetza bikaina izaten da. Antolaketa lanean, ordea, hemen ere jende falta somatzen dute. Luis Albiuak esan digunez, "hasieratik talde bera dabil antolaketa lanean. Jendeari deialdia luzatu diogu, baina ez da hurbildu".


Bestalde, Jose Mari Aztiriaren ustez Beitiaren omenezkoaren partehartze datuak engainagarriak suerta daitezke. "Egun berezia da bi herriotan. Ez dut uste herriko mendizaletasuna neurtzeko termometro aproposa denik, festa bat da".

Aurtengo festa maiatzaren 22an izango da. Ibilbide luzeak 51,1 kilometro izango ditu eta motzak 26. Berrikuntza nagusia bi ibilbideak lehenengoz Belokitik pasako direla da. Horretaz gain, azpimarratzekoa da ibilbide luzea Murumenditik eta Matximentatik pasako dela.

Aztiriak eta Albiuak ibilbide motza egiten dutenak euren irteeretan parte hartzera animatu nahi dituzte. "Ibilbide motza egiten dutenek gure irteeretara lasai asko etor daitezke, txangoetako ibilbide gehienek Beitia martxako ibilbide motzak baino kilometro gutxiago baitituzte".







## Pablo Santillan

Pablo Santillan Burgoseko Mahamud herrian jaio zen, baina 12 urterekin Irunera etorri zen ikastera. "Garai hartan Burgosen ez zegoen etorkizun handirik eta gurasoek Irunera bidali ninduten. Bertako La Salle ikastetxean ikasi eta bizi nintzen. Lanbide Heziketa ikasi ondoren, Patrizion hasi nintzen lanean. Aita ere Legazpira etorri zen lanera eta bertan elkartu ginen".

Santillan sindikatu munduan sartuta egon zen urte askotan. "Franco hil aurretik Pasionistetan-eta bilera asko egin genituen. Ondoren, sindikatuak legeztatu zirenean, Patrizioko enpresa-batzordean egon nintzen".

55 urterekin aurrejubilatuta zen, baina ez du aspertzeko astirik izan. Azken urteotan Gure-Txoko jubilatuen elkarteko Irri Makila antzerki taldean buru-belarri dihardu. "Irungo La Sallen hasi nintzen antzerki kontuan, baina ez nuen luzaroan jarraitu. Gero Legazpiko Beti Gazte taldekoek laguntza eskatu zidaten eta urte batzuetan beraiekin izan nintzen". Apirilean Pablok Irri Makila taldearentzat idatzitako azken antzezlanaren estreinatuta da, jubilatuen III. Aste Kulturalaren barnean. "Idaztea atsegin dudanez, noizean behin antzerki talderako zer edo zer idazten dut. Goizetan egunkaria goitik-behera irakurtzen dut eta bertatik antzezanetarako ideia asko hartzen ditut".

Pablo Santillan asmatzailea ere bada, asmakuntza bat patentatua du behintzat. "Behin geriatrikotik neska bat etorri zen agure bat ohetik erori zela esanez eta emazteari hori saihesteko zer egin zitekeen galde-tu zion. Buruari jiraka eta biraka hasi eta adinekoentzat eta haurrentzat segurtasun izara bat egitea lortu nuen".

Pablo ez da geldirik egon zalea eta garai batean korrikalari fina ere izan zen. "Gaztetan atletismo asko egin nuen eta Espainiako azpitxapeldun izan nintzen martxan. Behobia-Donostia lasterketa, maratoiak... egin nituen, baina meniskoa hautsi ondoren korrika egiteari utzi behar izan nion".

### -Zer izan nahi zenuen umetan?

Ez dut ezer izan nahi nuenik oroitzen.

### -Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Irakurtzea eta idaztea. Baita ekimen ezberdinetan parte hartzea ere, ez bainaiz geldirik egon zalea.

### -Bizitzeko toki bat?

Urretxun oso gustura nago, asko kostako litzaidake Ipeñarrietatik irtetea.

### -Gustuko aktorea?

Mr. Bean-en grazia asko atsegin dut.

### -Gustuko antzezlanak?

"Biblia osoa gutxi gorabehera" asko gustatu zitzaidan. Sarrerak bukatu zirela eta, "Cocidito Madrileño" ikusteko gogoz gelditu nintzen. Halako antzezanak atsegin ditut.

### -Gustuko korrikalaria?

Argixaon Diego Garciarekin entrenatzen genuen sarritan, baina gehien atsegin nuena Martin Fiz zen. Nire garaikoen artean, berriz, Mariano Haro.

### -Ilehoriak ala beltzaranak?

Denak daude ondo.

### -Egindako azken oparia?

Bilobari egindakoren bat izango da.

### -Eta jasotakoa?

Kolonia.

### -Data bat?

1954ko abuztuaren 25a. Egun hartan etorri nintzen Burgosetik Irunera eta orduan ikusi nuen itsasoa lehenengo. Nirekin zihoan fraileari "¡Mecagüen la mar salada! esan niola oroitzen dut.

### -Neska eta mutil izen bana?

Asier eta Maitane.

### -Zein egunkari irakurtzen duzu?

"DV" eta kanpora joaten naizenean "El País".

### -Gustuko telebista saioa?

"Vaya semana".

### -Bereziki gorroto duzuna?

Txutxumutxu saioak ez ditut batere atsegin, baina emaztearekin eta amaginarrebarekin jai dut!

### -Liburu bat?

Orain "El Quijote" ari naiz irakurtzen.

### -Filme bat?

"Mar adentro".

### -Soinu bat?

Saxofoiarena.

### -Usain bat?

Larrosarena.

### -Janari bat?

Kokotxak.

### -Ura ala...

Ardoa eta ona bada, hobe!





# Jose Mari Iparragirre B.H.I.

Santa Barbara bidea z/g.  
20700 Urretxu  
Telefona: 943 72 14 13  
Faxa: 943 72 14 03  
Posta elektronikoa:  
jmiparragirre@edunet.es  
www.ibdinternet.com/iparragirre



## Erdi mailako heziketa zikloa **Erizain laguntzailea**

Osasun familia, A-D ereduatan

Titulazioa: Erizaintzako laguntzaile-teknikaria

Iraupena: 1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi), lantegietan egiten den prestakuntza barne (400 ordu)

Lanbide aukerak: Ospitaleko erizain laguntzailea, lehen artapenetako laguntzailea, kontsulta pribatuetan, zaharren egoitzetan, hortz-kliniketan laguntzailea, gaixoen zaintza.



## UROLA GARAIKO LANBIDE ESKOLA UROLA GARAIKO FUNDAZIOA

Beloki Hiribidea, z/g. - 57 posta kutxatila - Zumarraga  
943 72 54 77 - Fax: 943 72 60 03  
ugle@ugleskola.org - www.ugleskola.org

### Prestakuntza eta zerbitzuen eskaintza

**BATXILERGO TEKNOLOGIKOA**  
D eta A ereduatan




**ERDI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA**  
2.000 ordu - 2 ikasturte - Teknikari titulua  
-Mekanizazioa teknikaria  
-Makineria eta linea-eroanbideen instalazio eta mantenimendu elektromekanikoa

**GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA**  
2.000 ordu - 2 ikasturte - Goi mailako teknikari titulua  
-Mekanizazio bidezko produkzioa  
-Industri ekipoen mantenimendua  
-Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak

**ENPRESETAN PRAKTIKAK**  
Gure ikasleak, laguntzaile ditugun 60 enpresa baino gehiagotan banatzen dira praktikak egiteko.

**LAN BURTSA**  
-Ikasle eta enpresen arteko artekaritza.  
-Enplegu-garritasun gehieneko prestakuntza eskaintzak.

**PRESTLAN PROIEKTUA**  
Eskolan bertan ikasketa orduz kanpoko praktika produktiboak (enpresentzat hainbat lan).



Aurrematrikula epea: Batxilergoa, apirilaren 25etik maiatzaren 6ra - Zikloak, ekainaren 1etik 8ra  
Matrikula epea (guztientzat): ekainaren 30etik uztailaren 6ra





## SUKALDE ERAKUSKETA



Ipeñarrieta, 5  
☎ 943 72 50 75  
URRETXU

San Lorenzo, 1  
☎ 943 53 35 48  
OÑATI

Udala enparantza  
☎ 943 79 00 43  
ARRASATE